# Hau da aste honetako euskararen pilula!

## “Dominio público” euskaraz, nola?

dominio público = herri-jabari, jabari publiko

### Definizioa

Honela definitzen du Espainiako Kode Zibilaren 339. artikuluak herri-jabariko edo jabari publikoko ondasuna:

Herri-erabilerarako destinatutako ondasuna edo, herri-erabilerakoa izan gabe, herri-zerbitzurako edo nazioko aberastasuna suspertzeko destinatutakoa.

### Adibide batzuk

Bi formak zuzenak badira ere, adibideotan forma bana erabiliko dugu, labur beharrez:

- bien de dominio público > herri-jabariko ondasun
- camino de dominio público > jabari publikoko bide
- dominio público hidráulico > jabari publiko hidrauliko
- dominio público marítimo terrestre > itsaso eta lehorraren arteko jabari publiko
- suelo de uso y dominio público > erabilera eta jabari publikoko lurzoru
- zona o espacio de dominio público > jabari publikoko zona edo eremua

### ITURRIA

- Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak
- Epaibar
- Euskalterm